



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Azpeitia

Xaguxatar bidea

Lehen Hezkuntza (Hirugarren Zikloa)

ARLO/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza.
LOTUTAKO ARLO/IKASGAIK: Balio zibiko eta etikoaren heziketa.

Izarraitz mendiaren magalean egingo den ibilaldi zirkular honek aukera emango die ikasleei paisaiaren bilakaera eta gizakiaren eragina ulertzeko. Ibilbidean inguruko ondarea eta bertako bizimoduaren ezaugarriak ezagutuko dituzte, iraganaren eta egungo errealitatearen arteko loturak ikusten. Gainera, kontsumo arduratsuaz eta ingurumenaren zaintzaz hausnartuko dute, taldean eta behaketaren bidez.